

Mugimenduan

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Erritmo biziko ikasturte baten ondotik, oporrak mantsotzeko eta lasaitzeko aukera izan daitezke. Baina abuztua iritsi da eta mugimendua txikitu beharrean handitzen ari dela ematen du. Hasi dira ordaintokian ilarak eta borrokak, maletadun kotxe eta karabanen artean ezin kabitu. Gero ezin aparkatu. Ez dut buelta gehiago emateko gogorik eta urrun utzi dut autoa (10 minutura!). Marmarka egin dut bidea oinez, gaizki aparkatzen duten gidariak kritikatzeko. «Ze nazka, zenbat kotxe!», erratearekin batera bat gehiago naizela ohartuz, inoiz eginen ez nukeena egiten duena gainera: gero eta toki

gehiagotara joan autoan eta atean aparkatzen saiatu. Jaitsi naiz lau gurutetatik eta oinezko bat naiz orain. Eta halere jendearekin tupust egiten dut. Ze amorrua ematen didaten erdian poste bat bezala gelditzen direnek! Eta espaloi osoa hartzen dutenek solaserako! Zerua ere marra zuriz betea dago. Uztailaren 25ean inoiz baino hegaldi gehiago zenbatu zituzten: 24 ordutan 230.000. FlightRadar24 plataformak egiten ditu estatistika hauek, hegaldi komertzialak, jet pribatuak, hegazkin pertsonalak eta bidaia turistikoak barne hartuz, eta denbora gutxian errekor ho-

ri gaintitzea ez dela harritzekoa izanen azaldu du bertako komunikazio ardura-dunak. Ipar hemisferioko jende ugari-ko mapako puntu bat aukeratu eta abioia hartzen dugu, hego hemisferioko biztanle aunitzek gerratik eta gosetik atera ezin duten bitartean. Itxarongeletan ere mugimendua dago: mugikorra, gurutzegramak, telebis-ta, musika, eta dena batera. Eta halere aspertuta. Badirudi bertzerik gabe ego-ten ahanzten ari zaigula. Etxalarko aita-txik eta amaxik bertan egin zuten bizi-tza; urrunen Donostiara atera ziren. Horra itzultzea ere ez da kontua, baina gelditzen ahal gara. •

Donostia galbidean

**Xabier Mikel
Errekondo**

Donostiari betaurrekoak jantzi dizkiote. Ez hobe ikusteko bai-na. Ispiludun eguzkitako betau-rrukoak, *glamour* apartekoa emango diotelakoan, kanpotarren atse-ginerako eta salgarriago egiteko. Baina, zer saldu eta nori? Berdin du. Saldu, kos-ta ahala kosta. Kostako herri dotorea da Donostia, erakargarria zalantzarik gabe. Badu historia bikaina, arkitektura zora-garrizko eraikinak, pintxoak, bazter-anitz eta bakarrak... auzoak, auzotarrak eta bizimoduak, baina, norantz doa? Badirudi agintariak eguzkitako betau-rrukoak jantzita nazioarteari begira bizi

direla eta turismo oldeak erakartzeko irrikaz dituztela politikak diseinatzen, hiritarren beharrei erantzuteko ordez. Turismoak aberastasuna dakar, zalan-tzarik ez. Norentzat ordea? Arduradun politikoen nahia hotelak eta pisuak eskaintzea da turista oldeak erakartzeko, baina turista espezie in-basorea da (turistok ere...), eta, sortzen di-tuen kalteak ekiditeko neurriak hartu ezean, hamarkada bitan Donostia plas-tikozko hiria bilakatuko da, postal hu-tsa. Mamirik gabe, azala baino ez. Giro honetan, Woody Allenen etorre-rak eztabaida piztea ulergarria da, izan

ere, hiriaren etorkizuna eta, batez ere, hiritarrena, arriskuan dago. Nago egoerak okerrera egin aurretik neurri zorrotzak hartu eta hiritarren beharrak bermatu behar direla lehe-nik, bizimodua eta ohiturak zaindu, fa-milia kideek bertan jarrai dezaten etxebizitza politika ausartak bultzatu, eta abar. Gainontzean turismo inbasoreak hi-riak berezkoak dituen xarma eta bizi-modua apurtu egingo ditu betirako. Adibide garbiena Bartzelona dugu, tu-rismoaren ohian huts bilakatuta, galbi-dean jada. •